

Paradisuarien kaiolak

**Itzea Urkizu
Arsuaga**

Gureak maite ditugu gehien: mendiak, hizkuntzak, bazterrak eta festak. Gureak. Noan, bada, izenordain arriskutsuegiaren aitzakian, Tolosako inauterien apologia egitera. Halakoetan, bertakoak sentitzen baitu, kanpotarrak ez duela erabateko zilegitasunik, ospakizun horren bueltako usadioekin hunkitzeko: danborrada donostiarrentzat, eta Riauriaua iruindarrentzat, lehen, orain eta beti. Arrazakeria folklorikoa.

Eta, “-keria” galanta izanagatik, ezin uka, norbere oasiaren mapa ez duela, inork, norberak baino hobeto ezagutzen. Horixe baitira, tolosarrontzat, inauteriak: sei eguneko paradisu efimeroa; egutegi satiriko bat, hamabi hilabete zimurrago garela ikusteko, eta ze

ondo. Inauteriak errutinazko adrenalina dira; maitemintze kolektibo bat, gure itxuraldatzearekin, gure eztarri urratuekin eta gure Alde Zaharraren akustika perfektuarekin. Eta, bai, hori ere bai: Tolosan, inauteriak urte osoko hizpide eta topiko errepikakorra dira, nahiz eta, ustez, inauterietan gertatutakoa, inauterietan geratzen den.

Ustez. 2011ko Ostegun Gizena baitzen gure herrian, Gure Kaiola elkartean, urteroko bazkideen afarira bi emakume joatekoak zirelako, 70 bat bazkide –gizonezko, esan gabe doa– mahaitik altxatu ziren eguna. Gerora, albiste eta erreportajeen bazka izan zen gaia eta, denborak ahanzturari eskua emana zionean, Glaukomaren “Gure Kaiola” singleak hartu zituen Euskal Herriko

parrandak eta Spotify zerrendak. Egileen berrespenik gabe bada ere: ez, esango nuke izenburuarena ez dela kasualitate.

Jakin berri dut lehen emakume bazkideak sartu dela Tolosako elkarte zaharretakoa den horretan, eta garai berriak ospatu nahi nituzke, baina ezin dut. Ezin dut, maitemintzen nauten inauteri berberak baztertzen nautelako, oraindik ere, herriko zenbait gotorlekutan; diru publikoz lagundutako zenbait elkartetan, eta haien txarangetan.

Datozen egunotan, gal gaitezen norbere oasiaren lurraldean, maparik gabe, eta zahartu gaitezen inauteri bat gehiago. Baina, inauterietan gertatzen dena, ez dadila inauterietan geratu: gurek zabalik behar dituzte kaiolak. •

CAF, zirt edo zart

Koldo Sagasti

Duela aste batzuk ezohiko albiste batek nazioarteko iritzi publikoaren jomugan jarri gintuen. CAF enpresako langile batzordeak eskaera egin zion faktoriako zuzendari-tzari Jerusalemeko tranbiako eraikuntzarako lizitazioetik erretira dadin. Gurean hauts gehiegirik harrotu ez dituen berriak hainbesteko oihartzuna izan du mundu mailan, non Palestina Askatzeko Erakundeak berak eskertu egin baitien Beasaingo langileei lan zama handia ekar liezaiekeen proiektuaren aurrean irizpide etikoak lehenetsi izana.

Beharginek argudiatu zuten proiektuarekiko errefusa esanez azpiegitura horrek nazioarteko legedia eta palesti-

narren giza eskubideak urratzen dituela. Trenbidea ilegala da nazioarteko zuzenbidearen ikuspuntutik, ilegalki okupatutako eremuetan eraikiko dutelako. Eta baztertzaila da palestinarrentzat, debekatuta izango dutelako kolono ilegalentzat eraikitako garraibide hori erabiltzea. Baina, batez ere, gaitzesgarria da Israelgo garbiketa etniko estrategiaren osagai gakoa delako. Azpiegitura horren bidez, okupazio erregimenak Jerusalem ekialdeko kolonia ilegalak hirigunearekin lotu eta auzune arabiarrek banatu egiten ditu; eta horrela, hiriko demografia eraldatu egin nahi dute.

CAFeko langileek enpresaren esku utzi dute korda luzea ekar dezakeen

erabakia. Eskakizunari muzin egiteak etekin ekonomiko handia ekarriko lieke, baina baita euren irudi korporatiboarentzako orban bat ere, etikaren gainean diruzalekeria hobesten duen gupidagabeko enpresa bezala geratuko litzatekeelako jendartearen aurrean. Aitzitik, proiektutik erretiratuko balitz, haren jokaera eredugarria izango litzateke Israelekiko merkataritza harremanak dituzten beste enpresa askorentzat.

Ez daukat dudarik tamaina horretako enpresa batek bere interesen alde jotatuko duela. Interes horietarako Israelekiko harremanak oztopo bat badira, garapenetik gertuago izango gara. •